



## MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 6013/2024 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2024/02/22, 09:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2024/02/22, 19:30  
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

### ◆ Zergatia:

Haizea: haizeguneetan  
Haizea haizeguneak ez diren tokietan  
Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan  
Elurra: Prezipitazioa elur moduan 1000 m-tik Behera  
Itsasaldeko Arriskua: Zipriztinak  
Itsasaldeko Arriskua: Kostaldean inpaktua

### ◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Osteguna, hilak 22:

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 06etatik 16etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek haizeguneetan 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan. Arratsaldeko lehen orduetan haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatuko da eta kostaldeko haizeguneetan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 09etatik 16etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek haizeguneak ez diren lekuetan 80 km/h-ko abiadura gaindi dezakete. Arratsaldean haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatuko da; barnealdean aldaketaren ondoren haizeak indarra galduko du.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 3.5 m inguruan kokatuko da eta arratsaldean igotzen joango da 4 m inguruan kokatu arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m arteko altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 14 s. Egunaren lehenengo partean hego-mendebaldeko haizea 4-5eko indarrarekin eta 6ko tarteekin ibiliko da; arratsaldeko lehen orduetan haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatuko da 5-6ko indarrarekin, aldaketaren unean 7ko tarteekin. Itsaso kizkurra edo itsaskirria eragingo du eta arratsaldean itsaski handia edo itsaso zakarrera handituko da.

Ostirala, hilak 23:

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 24etara ordu lokala.

Elur-kota 800 m inguruan kokatuko da. Kantauri isurialdean zaparrada ertainak botako ditu eta gainerako lekuetan txiki-ertainak. Trumoi-ekaitzak jo eta txingorra bota dezake.

Aurreikusitako lodierak: 0-5 cm 1000 m-ra, 0 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 12etara ordu lokala.



Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m artean kokatuko da. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 4 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 14-15 s. Mendebaldeko haizea 4-5eko indarrarekin ibiliko da, 6ko tarteekin. Itsaskia edo itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneein.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5 m-tik gora koka daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 4-5 m arteko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 15 s. Mendebaldeko haizea 5eko indarrarekin ibiliko da, 6ko tarteekin. Itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneein.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 12etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoraren inguruan.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua** 03etatik 05etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4 m ingurukoa izango da. Olatuen arteko periodoa: 14 s. Itsasgora 04:16an (ordu lokala) 4.43 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.20 m + meteorologikoa: 0.23 m). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.1$  m eta  $I_{max}=6.6$  m.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua** 16etatik 18etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5 m-tik gora koka daiteke. Olatuen arteko periodoa: 15 s. Itsasgora 16:35ean (ordu lokala) 4.29 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.04 m + meteorologikoa: 0.25 m). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.3$  m eta  $I_{max}=6.9$  m.

Larunbata, hilak 24:

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 15etara ordu lokala.

Elur-kota 700 m inguruan kokatuko da; arratsalde-gauean 1000 m ingurura igoko da. Kantauri isurialdean zaparrada txiki-ertainak botako ditu, bereziki kostaldean. Gainerako lekuetan han- hemenka zaparrada txikiak botako ditu, noizbehinka ertainak. Trumoi-ekaitzak jo eta txingorra bota dezake.

Aurreikusitako lodierak: 2-15 cm 1000 m-ra, 0-1 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5 m-tik gora koka daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 4-5 m arteko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 15-16 s. Mendebaldeko haizea 5eko indarrarekin ibiliko da, 6ko tarteekin. Itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneein.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m artean kokatuko da. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 4 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 16-17 s. Mendebaldeko haizea 4-5eko indarrarekin ibiliko da, 6ko tarteekin. Itsaskia edo itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneein.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 00etatik 15etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoraren inguruan.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua** 03etatik 07etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5 m-tik gora koka daiteke. Olatuen arteko periodoa: 16 s. Itsasgora 04:46an (ordu lokala) 4.57 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.33 m + meteorologikoa: 0.24 m). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.8$  m eta  $I_{max}=7.5$  m.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua** 15etatik 19etara ordu lokala.



Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m artean kokatuko da. Olatuen arteko periodoa: 16-17 s. Itsasgora 17:04an (ordu lokala) 4.34 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.15 m + meteorologikoa: 0.19 m). Gainezka egiteko indizeak:  $l=6.7$  m eta  $l_{max}=7.3$  m.

◆ **Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:**

**Sigue la información en Twitter-Infomazioa Twitter-en jarraitu.**

**@112\_SOSDeiak @Euskalmet**